8.- Eskaintzak aurkeztea
a) Epea: 2013ko urtarrilaren 2a
b) Aurkeztu beharreko agiriak: ikusi ezaugarrien taula, administrazio agiriak eta agiri teknikoak.
c) Aurkezteko lekua:
Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
Helbidea: Probintzia plaza, 5 - behea.
Herria eta posta kodea: 01001 Gasteiz
Azken ordua: 14:30ak edo 12:30ak, ordutegi bereziko eguna izanez gero.
Eskaintzak posta bidez aurkeztekotan, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Faxa (eskaintzak posta bidez aurkezteko bakarrik): 945 181754
d) Lizitatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete

9.- Eskaintzak irekitzea
a) Irekitzeko lekua:
Erakundea: Arabako Foru Aldundiko Ogasunaren eraikineko bilera gela.
Helbidea: Samaniego, 14 – 5. solairua.
Herria eta posta kodea: 01001 Gasteiz
b) Data: ikusi ezaugarrien taulako "T" puntua.
c) Ordua: 13:00
10.- Bestelako argibideak: Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoan.
11.- Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.
12.- Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali zen eguna: 2012ko azaroaren 22a
13.- Hala dagokionean, deialdiaren inguruko argibideak ageri diren atari informatikoa edo web orria, zeinean agiriak eskuratu daitezkeen: www.alava.net (kontratatzailearen profila)
Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 22a.– Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatu titularra, LUIS VIANA APRAIZ.– Eskuordetzan, Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ.

8.- Presentación de ofertas
a) Plazo: 2 de enero de 2013.
b) Documentación a presentar: Ver cuadro de características, pliegos administrativos y pliegos técnicos.
c) Lugar de presentación:
Entidad: Registro General de la Diputación Foral de Álava
Domicilio: Pza. de la Provincia, 5-bajo
Localidad y código postal: 01001 Vitoria-Gasteiz
Hora límite: 14,30 horas o 12,30 horas si es día con horario especial

En el caso de la presentación de ofertas por correo, se estará a lo dispuesto en el artículo 80 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Fax (sólo para presentación de ofertas por correo) 945 181754
d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 3 meses
9.- Apertura de las ofertas
a) Lugar de apertura:
Entidad: Sala de Reuniones (Edificio Hacienda) de la Diputación Foral de Álava
Domicilio: Samaniego, 14 – 5ª planta
Localidad y código postal: 01001 Vitoria-Gasteiz
b) Fecha: Ver punto "T" del cuadro de características.
c) Hora: 13'00 horas.
10.- Otras informaciones: En la Secretaría Técnica de Servicios Generales
11.- Gastos de anuncios: Serán de cuenta del adjudicatario
12.- Fecha de envío del anuncio al Diario Oficial de la Unión Europea: 22 de noviembre de 2012
13.- En su caso, portal informático o página web donde figuran las informaciones relativas a la convocatoria donde pueden obtenerse los pliegos: www.alava.net (perfil de contratante)
Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2012.– El diputado foral titular del Departamento de Promoción Económica y Administración Foral, LUIS VIANA APRAIZ.– Por delegación, el jefe de la Secretaría Técnica de Servicios Generales, EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**6529**

**534/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 19koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, "Aberasturiko (Gasteizko udalerria) ureztatze lanetarako urmaela handitzeko legeztatze proiektua"ri buruzko ingurumen eraginaren aldeko adierazpena egiten da, hainbat baldintzari lotua.**

«Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazi du Arangizko ureztatzaileen elkarteak aurkeztu dizkiola Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoari aurkeztu beharreko agiriak, hain zuzen ere, "Aberasturiko (Gasteizko udalerria) ureztatze lanetarako urmaela handitzeko legeztatze proiektua"ren izapideekin amaitzeko falta zirenak. Proiektu horren ondorioz, 532 hektarea ureztatze aldera 428.000 $m^3$ ur pilatzeko urmaela eraiki zen, bai eta beranduago hura handitu ere. Ingurumen eraginaren azterlanean adierazitakoari jarraituz, urmaelak Uragona errekatik hartzen du ura negutik udaberrira bitartean. Horretarako, errekatik urmaelera 21,50 l/s ur isuraldatzen da aldi horretan; hori horrela, emari ekologikoa ehuneko 10 baino apur bat handiagoa da.

Proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuz gero, bereziki urmaelak ura pilatzeko duen ahalmena eta presaren tamaina, gaur egun proiektu hori ingurumen eraginaren banakako ebaluazioaren prozedura jarraitu behar duten obra eta jardueren artean egongo litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrarekin eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**6529**

**ORDEN FORAL de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo 534/2012, de 19 de noviembre, por la que se formula con carácter favorable, sujeta a determinadas condiciones, la Declaración de impacto ambiental del "Proyecto de Legalización de la ampliación de la balsa de regadío de Aberásturi, término municipal de Vitoria-Gasteiz".**

"La Dirección de Medio Ambiente y Urbanismo da cuenta de que la Comunidad de Regantes de Aranduya ha presentado ante el Órgano Ambiental de la Diputación Foral de Álava la documentación necesaria para completar los trámites pendientes del "Proyecto de Legalización de la ampliación de la balsa de regadío de Aberásturi, término municipal de Vitoria-Gasteiz (Álava)" que supuso la construcción y posterior ampliación de una balsa de acumulación de 428.000 $m^3$ de agua para el riego de 532 hectáreas. Tal y como se indica en el Estudio de Impacto Ambiental, la balsa de acumulación se abastece de agua captada del arroyo Uragona durante la época invernal-primaveral, para lo cual se realiza el trasvase de 21,50 l/sg de agua del arroyo a la balsa durante el periodo indicado, de modo que el caudal ecológico resulta ser algo superior al 10 por ciento.
Dadas las características del proyecto, en particular las que hacen referencia a la capacidad de almacenaje de agua así como a las dimensiones de la presa, éste se encontraría hoy incluido en la lista de obras y actividades sometidas a Evaluación Individualizada de Impacto Ambiental, conforme a la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, de acuerdo con el procedimiento contemplado en el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental.

Ingurumen eraginaren azterlana, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera, hogeita hamar egun baliodunez jarri da jendaurrean ALHAOn (65. zk., 2012ko ekainaren 6koa) argitaratutako Nekazaritza Sailaren iragarkiaren bidez. Izapide horrek iraun bitartean, ez da azterlanaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Aldi berean, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 9.3 artikulua betetzeko, ingurumen eraginaren azterlanaren hedadura eta zehaztasun mailari buruz aurretik kontsulta jaso zuten eragindako herri administrazioei eta interesdun diren pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, kontsulta egin zaie.

Kontsultari bost administraziok erantzun diote. Aurkeztutako alegazioen edukia zehatz-mehatz aztertu da, bai eta ingurumen eraginaren adierazpen honetan aintzat hartu ere. Hona hemen alegazioen norainokoa labur-labur:

a) Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazi du proiektuaren eragin eremuan interes historiko eta arkitektonikoa duten hiru elementu txiki daudela. Jasota utzi du, halaber, proiektuaren idazketa fasean beste elementuren bat aurkitzen bada, zerbitzuari horren berri eman beharko zaiola hark txostena egin dezan. Txosten horretan, elementuak babesteko beharrezko neurriak ezarriko dira.

b) Arabako Foru Aldundiko Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du, 1996. urtean egindako obra bat legeztatzeari buruz ari garenez, arkeologiaren ikuspuntutik ez dela arkeologia eraginaren azterlanik egin behar, ez eta neurri zuzentzaileen proposamenik luzatu ere.

c) Uraren Euskal Agentziak (URA) uste du, bere eskumeneko gaiei dagokienez, ingurumen eraginaren azterlanean jasotako oharrak eta neurriak egokiak direla.

d) Ingurumena Kudeatzeko Ihobe SA sozietate publikoak esan du esku hartzea egingo den zonan ez dagoela 165/2008 Dekretuan, irailaren 30ekoan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoan sartutako lurzatirik.

e) Gasteizko Udalak hirigintza eta ingurumenarekin lotutako alderdiak aztertu ditu Ingurumen Gaietarako Ikastegiak, Nekazaritza Plangintza eta Kudeaketa Atalak eta Hirigintza Planeamendu eta Kudeaketa Zerbitzuak elkarrekin idatzitako txostenean.

Hirigintza antolamenduari dagokionez, jardun eremua lurzoru urbanizaezin sailkatuta dagoela adierazi da, eta gaineratutako I eta II baldintzak dituela, azaleko uren babeserako zona berezia delako.

Ingurumen aldagaiei helduta, hauxe aipatu dute, besteak beste: neurri zuzentzaile zehatzak ezarri behar dira, faunak eragin txikiagoa jasateko eta urmaela ingurunearekin integratzeko xedez. Kontuan hartuta prozeduraren xedea duela bi hamarkada baino gehiago eraikitako azpiegiturak legeztatzea dela, ingurumen organo honek uste du ingurumen eraginaren adierazpeneko 2.C idatz zatian aipatutako konpentsazio neurriaren bidez eta 3.B eta 3.C epigrafeetan jasotako neurrien bidez behar bezala erantzungo zaiela eskaera horiei. Gasteizko Udalak, ingurumena zaintzeko plana zuzentzeko eskatu du, hain zuzen ere, proposatutako eremu landatuen jarraipena eta emari ekologikoaren aldizkako kontrola txertatzeko eskatu du. Alderdi horiek ingurumen eraginaren adierazpen honetan ere aintzat hartu dira.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren aldeko txostena aztertu da.

Foru Aldundiak eskumena du ingurumen eraginaren adierazpena egiteko, hala baitio otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babestekoak, 44.2 artikuluan.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan aitortutako eskumenez baliatuta, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen maiatzaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren 48/2008 Foru Dekretuarekin bat (uztailaren 19ko Diputatuen Kontseiluaren 162/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatua), honakoa

El Estudio de Impacto Ambiental ha sido sometido a información pública por un periodo de treinta días hábiles, tal y como se establece en el marco legal vigente, mediante el anuncio del Departamento de Agricultura publicado en el BOTHA nº 65 de fecha 6 de junio de 2012, no habiéndose presentado en este trámite ninguna alegación. Al mismo tiempo, y en cumplimiento del artículo 9.3 del Real Decreto Legislativo 1/2008, se ha procedido a efectuar consultas a las Administraciones públicas afectadas y personas interesadas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que previamente habían sido consultadas en relación con la definición de la amplitud y el nivel de detalle del estudio de impacto ambiental.

Habiendo sido cinco las Administraciones que han respondido finalmente a la consulta realizada, el contenido de las alegaciones presentadas ha sido analizado en detalle y considerado en la presente Declaración de impacto ambiental. Se recoge de forma resumida a continuación el alcance de dichas alegaciones:

a) El Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico de la Diputación Foral de Álava señala que en el ámbito afectable por el proyecto se sitúan tres elementos menores de interés histórico-arquitectónico e indica que si durante la redacción del proyecto se descubriera la existencia de cualquier otro elemento, se deberá poner en conocimiento de dicho Servicio para la emisión del correspondiente Informe en el cual se establecerán las medidas necesarias para su protección.

b) El Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico de la Diputación Foral de Álava informa que al tratarse de la legalización de una obra realizada en 1996, desde el punto de vista arqueológico no se requiere estudio de impacto arqueológico ni propuesta de medidas correctoras.

c) La Agencia Vasca del Agua URA considera que en materia de su competencia, las consideraciones y medidas incluidas en el Estudio de Impacto Ambiental resultan adecuadas.

d) La Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe S.A. señala que en la zona objeto de intervención no existen parcelas incluidas en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

e) El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz analiza tanto los aspectos urbanísticos como los ambientales en un informe conjunto de los técnicos del Centro de Estudios Ambientales, la Unidad de Planificación y Gestión Rural y el Servicio de Planeamiento y Gestión Urbanística.

En cuanto a la ordenación urbana, se señala que el ámbito de actuación se encuentra clasificado como Suelo No Urbanizable con los condicionantes superpuestos I y II por tratarse de una zona de especial protección para las aguas superficiales.

En cuanto a las variables ambientales, entre otros aspectos, se indica que resultan necesarias medidas correctoras concretas para mitigar el impacto sobre la fauna, así como para integrar la balsa en el entorno circundante. Teniendo en cuenta que el procedimiento responde a la legalización de infraestructuras que fueron construidas hace más de dos décadas, este Órgano Ambiental considera que mediante la medida compensatoria señalada en el apartado 2.C de la presente Declaración de impacto ambiental y las medidas recogidas en los epígrafes 3.B y 3.C, se da una respuesta adecuada a dichas solicitudes. A su vez, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz solicita que el Plan de Vigilancia Ambiental se corrija y se complete, incluyendo el seguimiento de las plantaciones propuestas y el control periódico del caudal ecológico, aspectos que también han sido considerados en esta Declaración de impacto ambiental.

Visto el informe favorable de la Dirección de Medio Ambiente y Urbanismo de esta Diputación Foral.

Considerando que la Diputación Foral es competente para formular la correspondiente Declaración de impacto ambiental a tenor de lo dispuesto en el art. 44.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

En su virtud y en uso de las atribuciones conferidas por el artículo 40 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava en relación con el Decreto Foral número 48/2008 del Consejo de Diputados de 20 de mayo que aprueba la estructura orgánica y funcional Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, modificado por el Decreto Foral 162/2011, del Consejo de Diputados de 19 de julio.

XEDATU DUT

Lehenengoa. “Aberasturiko (Gasteizko udalerria) ureztatze lanetarako urmaela handitzeko legeztatze proiektua”ri buruzko ingurumen eraginaren ALDEKO adierazpena egiten da.

Bigarrena. Ingurumenarekin erlazionatutako baldintza lotesle hauek ezartzen dira:

A) Ebazpen honetan jasotako zehaztapenak bete beharko dira, bai eta proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluaziorako Ingurumen eta Hirigintza Sailari aurkeztutako agirietan jasotakoak ere, baldin eta ez badaude ebazpen honetan esaten denarekin kontraesanean. Baldin eta ingurumen eraginaren azterlanean aurreikusitakoarekiko edozein aldaketa sortzen bada, eta horrek gorabeheraren bat badakar eta espero ziren ingurumen eraginetan aldaketarik eragiten badu, ingurumen organo honek horren berri izan beharko du, eta onartu.

B) Ingurumen eraginaren azterlanean azaltzen diren ingurumen eraginei aurrea hartzeko eta horiek zuzentzeko neurriak hartu beharko dira, ingurumen eraginaren adierazpen honetan txertatutako aldaketak barne.

Horretarako, nahitaezkoa izango da betearaztea landaredia lehengoratzeko neurri konpentsatzailea, Ortauriko urmaeletik gertu dagoen 15.000 $m^2$-ko azalera ekologiaren eta paisaiaren aldetik berritzeko aurreikusitakoa. Neurri horren xedea da urmaela eraikitzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeagatik bere garaian kaltetuak izan ziren hariztiak konpentsatzea. Ingurumen eraginaren azterlanean dago azalduta neurri hori eta, beraz, agiri horretan zehaztutako baldintzetan bete beharko da, ingurumen organo honek sartutako aldaketak ere kontuan izanda.

C) Ortauriko urmaelaren mendebaldean kokatutako 15.000 $m^2$-ko azalera “Aberasturiko (Gasteizko udalerria) ureztatze lanetarako urmaelaren handitzea legeztatzeko ingurumen eraginaren azterlan aldatua” izeneko dokumentuaren 2. planoan irudikatu da. Bada, azalera horretan egin beharreko zuhaitz eta zuhaixken landaketak baldintza hauen arabera burutuko dira:

-*Quercus robur, Fraxinus excelsior eta Acer campestris* zuhaitz espezieak landatuko dira, bi izerdi mota botatzen dituztenak, sustrai hutsekoak edo sustrai lurdunak, zurkaitzak behar bezala jarrita, landatze eremu irregularrean (625 ale/ha). Horiekin batera, ondoko zuhaixka espezieak sartuko dira, taldeka edo zuhaiztietan (1875 ale/ha): *Cornus sanguinea, Crataegus laevigata, Crataegus monogyna, Viburnum lantana, Viburnum opulus, Prunus spinosa eta Corylus avellana*.

- Zuhaitz espezieentzako zuloa neurri honetakoa izango da: 0,5 m x 0,5 m x 0,6 m (sakonera).

- Zuhaixka espezieentzako zuloa neurri honetakoa izango da: 0,4m x 0,4m x 0,5m (sakonera).

- Zuhaitz espezieak landatzeko eremua: 4m x 4m.

- Zuhaitz landareen inguruan material babesgarri bat (tubexa) jarriko da. Bai zuhaitzek bai zuhaixkek oinean belarren aurkako plastiko fotodegradagarrizko babesa ondo tinkatuta edukiko dute; babes horrek gutxienez 2 edo 3 urteko iraupena bermatuko du.

- Landaketetan NPKrekin aberasturiko ongarri organikoa erabiliko da, jaregite geldokoa; hain zuzen ere, 100 gramo jaregingo ditu metro koadroko.

- Landatze sasoia: azaroa-martxoa.

D) Urmaela eraiki eta handitzeagatik hondatutako landaredia konpentsatzera bideratutako azaleran landaredia lehengoratzeko egiten diren lanetan, jarritako landare estalkia zaintzeko eta mantentzeko programa bat ere burutuko da (ureztaketak ur falta dagoen sasoietan; faltak sartzea eta babesgarriak berriro jartzea; laborantza lanak; etab.). Jarritako landare estalkia zaindu eta mantentzeko lan hauetan estalkia behin betiko errotuta eta ezarrita geratzeko behar beste denbora erabiliko da, hau da, gutxienez, 2 urte.

E) Proiektua gauzatzeko fasean, urte osoan eutsi beharko zaio Uragona ibaiaren arroko emari ekologikoari. Emari hori zenbatekoa den arroko erakunde eskudunak ezarriko du.

DISPONGO

Primero. Se formula con carácter FAVORABLE la Declaración de impacto ambiental del “Proyecto de Legalización de la ampliación de balsa de riego en Aberásturi, término municipal de Vitoria-Gasteiz”.

Segundo. Se fijan con carácter vinculante las siguientes condiciones ambientales:

A) Deberán adoptarse las determinaciones contenidas en esta Resolución y, en lo que no contradiga a ésta, las contenidas en la documentación presentada al Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo para la evaluación del impacto ambiental del proyecto. Cualquier modificación que surja en relación con lo previsto en el Estudio de Impacto Ambiental y que suponga cambios sensibles e implique variaciones en los impactos ambientales esperados, deberá ser informada y autorizada previamente a su ejecución por este Órgano Ambiental.

B) Deberán adoptarse las medidas de Prevención de Impactos y Corrección Ambiental expuestas en el Estudio de Impacto Ambiental, con las modificaciones introducidas en la presente Declaración de impacto ambiental.

A tal efecto será de obligada ejecución la medida compensatoria de restauración vegetal prevista para la regeneración ecológico-paisajística de la superficie de 15.000 $m^2$ aledaña a la balsa de Ortauri, cuyo objetivo es compensar las superficies de robledal que resultaron afectadas en su día por la ejecución del Proyecto Constructivo y su posterior ampliación de la balsa. Dicha medida se encuentra definida en el Estudio de Impacto Ambiental, debiéndose llevar a cabo en los términos desarrollados en el citado documento, con las modificaciones introducidas por este Órgano Ambiental.

C) Las plantaciones de árboles y arbustos a llevar a cabo en la superficie de 15.000 $m^2$ situada al Oeste de la balsa de Ortauri, representada en el plano nº2 del documento denominado “Estudio modificado de impacto ambiental para legalización de la ampliación de balsa de riego en Aberásturi, término municipal Vitoria-Gasteiz, Álava”, se ejecutarán conforme a las siguientes características:

-Plantación de especies arbóreas de dos savias de las especies *Quercus robur, Fraxinus excelsior y Acer campestris*, a raíz desnuda o cepellón, debidamente entutoradas, en marco de plantación irregular a razón de 625 ud/ha. Como acompañantes se introducen las siguientes especies arbustivas en grupos o bosquetes de plantación a razón de 1875 un/ha: *Cornus sanguinea, Crataegus laevigata, Crataegus monogyna, Viburnum lantana, Viburnum opulus, Prunus spinosa y Corylus avellana*.

- Dimensiones del hoyo para especies arbóreas 0,5m x 0,5m x 0,6m (profundidad).

- Dimensiones del hoyo para especies arbustivas: 0,4m x 0,4m x 0,5m (profundidad).

- Marco de plantación para especies arbóreas: 4m x 4m.

- Las plantas arbóreas se protegerán mediante la colocación de un material protector (tubex) alrededor de las mismas. Tanto los pies arbóreos como los arbustivos irán dotados de un protector de base antihierbas de material plástico fotodegradable correctamente anclado, de duración mínima garantizada de 2 a 3 años.

- Como abono de plantación se empleará fertilizante orgánico enriquecido con NPK de liberación lenta a razón de 100 gr/$m^2$.

- Época de plantación: noviembre-marzo.

D) Los trabajos para la restauración vegetal de las superficie destinada a la compensación de la vegetación alterada por la construcción y posterior ampliación de la balsa se completarán con un programa de cuidados y mantenimiento de la cubierta vegetal instalada (riegos en épocas de déficit hídrico, reposiciones de marras y de protectores, labores culturales, etc). Estos trabajos de cuidado y mantenimiento de la cubierta vegetal instalada se prolongarán el tiempo necesario para asegurar el arraigo e implantación definitiva de la misma, es decir, durante al menos 2 años.

E) En la fase de operación del proyecto deberá mantenerse durante todo el año el caudal ecológico de la cuenca del río Uragona que establezca el organismo de cuenca competente.

F) Sustatzaileak bere gain hartuko ditu honako hauek: adierazpen honetan jasotako ingurumena lehengoratzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko neurriak eta, hasiera batean aurreikusi ez arren, gero gerta litezkeen hondaketak edo aldaketak zuzentzeko proiektua abian den bitartean aurrera eraman beharreko neurri zuzentzaile osagarriak. Gainera, horiek denak aurrekontuan gogoan hartu beharko ditu, benetan egin ahalko direla bermatzeko.

Hirugarrena. Zaintza Plana.

Ingurumen eraginaren azterlanean ezarritako aginduez gain, proiektua abian den bitartean, proiektuaren jarduerei jarraipena egiteko moduari buruzko manu gehigarriak xedatu dira:

A) Erakunde eskudunek jarraipena egin beharko dute egiaztatzeko ezarritako emari ekologiko iraunkorrari eutsi diola organo sustatzaileak.

B) Zaintza planean fauna kontrolatzeko azterlana egin behar dela jasoko da. Azterlan horren bidez, azpiegituren funtzionamenduaren ondorioz faunari eragindako kalteak erregistratu eta balioetsiko dira, eta zauritutako aleen gorabeherak aztertu, batez ere, andel erregulatzailean zauritu direnenak. Horri esker, hala dagokionean, behar diren neurri zuzentzaile eta babesleak hartu ahal izango dira.

C) Hartutako neurri zuzentzaileen eta konpentsatzaileen eragin-kortasuna ebaluatzeko, ingurumeneko jarraipena egingo da. Hain zuzen ere, gauzatutako landare tratamenduen bilakaera, emari ekologikoa, faunari eragindako kalteak eta gerta litekeen ingurumeneko beste edozein gorabehera kontrolatuko dira bereziki, baita horiei denei jarraipena egin ere.

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra betetzeko, ingurumen eraginaren adierazpenak eragin lotesleak izango ditu hura gauzatzeko neurrietan eta baldintzetan.

Bosgarrena. Foru agindu hau Nekazaritza Sailari eta Arangizko ureztatzaileen elkarteari jakinaraztea, dagokion eran jardun dezaten.

Seigarrena. Ingurumen eraginaren adierazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 22a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.– Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.

F) Las medidas de restauración ambiental, control y vigilancia recogidas en la presente Declaración, así como las adicionales de tipo corrector que fuera necesario arbitrar durante la etapa de funcionamiento del proyecto para la corrección en su caso de situaciones de deterioro o alteración que pudieran surgir y no previstas inicialmente, deberán ser asumidas por el promotor y consideradas presupuestariamente en orden a garantizar su realización.

Tercero. Plan de vigilancia

Se establecen las siguientes prescripciones adicionales a las indicadas en el Estudio de Impacto Ambiental sobre la forma de realizar el seguimiento de las acciones que implica el proyecto durante su fase funcionamiento:

A) El cumplimiento por el órgano promotor del mantenimiento del caudal ecológico permanente establecido habrá de ser objeto de seguimiento por las instituciones competentes.

B) El Plan de Vigilancia deberá incluir la realización de un estudio de control faunístico encaminado a registrar y valorar las afecciones sobre la fauna que se detecten por el funcionamiento de las infraestructuras, que incluirá un análisis de las incidencias en relación a posibles ejemplares accidentados, en especial en el depósito regulador, de modo que se puedan arbitrar en su caso las oportunas medidas correctoras y protectoras.

C) Se realizará un seguimiento ambiental encaminado a evaluar la eficacia de las medidas correctoras y compensatorias adoptadas, siendo objeto de especial control y seguimiento la evolución de los tratamientos vegetales realizados, el mantenimiento del caudal ecológico y la afección sobre la fauna, así como cualquier otra incidencia ambiental que pudiera registrarse.

Cuarto. En cumplimiento de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Declaración de impacto ambiental tendrá efectos vinculantes en lo relativo a las medidas y condiciones de ejecución.

Quinto. Dar traslado de la presente Orden Foral al Departamento de Agricultura y a la Comunidad de Regantes de Aranduya para que procedan en consecuencia.

Sexto. Ordenar la publicación de la presente Declaración de impacto ambiental en el BOTHA.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2012.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.– La directora de Medio Ambiente y Urbanismo, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.